

Jose Agustin Etxabe Olaskoaga

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1924-2011)*

Aurkibidea

Biografia



Kale Nagusian jaio zen. Aita harakina zuen, eta bera haragi-partitzen jardundakoa da. Itxaropena inprentan ere egin zuen lan. 52an Venezuelara joan zen, eta duela 13 urte bueltatu zen Zarautzera.

Zintak

ZAR-002

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Data:** 2004-11-19
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Gaston Balerdi, Izaskun

ZAR-013

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Data:** 2005-01-13
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Haurtzaroa kalean jolasean

- **Erref:** ZAR-002/002
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:01:13. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

1924. urtean Zarauzko Kale Nagusian jaio zen Agustin. Kalean jolasten pasa zuen haurtzaroa. Orduko jolasak dakartza gogora. 32 urterekin Ameriketara joan zen eta 36 urte egin zituen bertan

2. Amona-saltoka

- **Erref:** ZAR-002/003
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:04:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Amona-saltoan plazan jolasten zutela kontatzen du. Bi talde behar izaten ziren. Jolasari buruzko azalpenak

3. Zarauzko azokan hortzak apurtu

- **Erref:** ZAR-002/004
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:04:53. **Bukatu:** 00:05:51

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Eguraldi txarra zenean, Zarauzko azokan jolasten zuten. Garai hartako haur gehienek hortzen bat bertako harmailetan hautsiko zuela kontatzen du.

4. Gerraosteko gosea

- **Erref:** ZAR-002/012
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:15:33. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean, nahiz eta dirua eduki, gosea pasa zutela gogoratzen dute. Babarrunen zomorroak, batata eta algarrobo-lekak dituzte hizpide.

5. Lau ikastetxe zeuden zarautzen

- **Erref:** ZAR-002/024
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:33:49. **Bukatu:** 00:35:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Lau ikastetxe zeuden Zarautzen. "Hegozabalena" edo Urtsulatarrena zen horietako bat. Haiek erabiltzen zuten buruko handi eta zuriek kaioak ziruditela kontatzen dute barre artean.

6. "Munoazpira joanez gero, hotza ez dena bero!"

- **Erref:** ZAR-002/026
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:36:37. **Bukatu:** 00:37:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Heziketa mistorik ez zegoen garai hartan. Bekatuaren mehatxuarekin bizi ziren neska-mutilak.

7. Maisu-maistren zigorrak

- **Erref:** ZAR-002/027
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:37:30. **Bukatu:** 00:40:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

Garai hartako maisu-maistrek zigor fisikoak ezartzen zituztela kontatzen dute. "Otsoa" ezizena zuen maisu bat dakarte gogora. Zakarrak izan arren, maisu onak zirela aitortzen dute.

8. Mendigoizaleen abestia

- **Erref:** ZAR-002/028
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:40:19. **Bukatu:** 00:41:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

Gaur egun Athletic futbol taldearen ereserkiaren doinua zuen mendigoizaleen kanta irakatsi zien 30. hamarkadan. Honela dio: "«Goizetik altza gaztiak, sasoi dezuten guztiak, jai eder hontan bildu zarrak eta gaztiak».

9. Zarauzko zinemak

- **Erref:** ZAR-002/029
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:41:06. **Bukatu:** 00:43:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Eskolatik piper egiteko aukerarik ez zuten izaten. Eskolaz gainera, hainbat elizkizunetan parte hartu behar izaten zuten. Don Melitonen sermoi luzeen erruz zinemara berandu iristen zirela kontatzen dute. Modelo zinemako sarrerak 25 zentimo balio zuen.

10. Gaztetako zaletasuna: kirola

- **Erref:** ZAR-013/002
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:01:07. **Bukatu:** 00:02:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Bere zaletasunak. Oso kirolzalea izan da beti. 10 urterekin txirrindulari lasterketa korritu zuen. Pilotan ere ibilia da eta baita igerian edo murgilka ere.

11. Gurasoen harategian ibili da lanean gaztetatik

- **Erref:** ZAR-013/003
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Gurasoek harategia zuten eta txikitatik lanean ibili izan da. 14 urterekin Itxaropenako lana eta etxekoa tartekatu behar izaten zituen.

12. Kale Nagusia eta jendearen bizimodua

- **Erref:** ZAR-013/004
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:04:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Kale Nagusian bizi izan zen 33 urtera arte. Umeek kalean egiten zuten bizimodua. Ez zen kotxerik pasatzen eta kalean jolasten zuten. Langileek lan-orduetatik kanpo zer egiten zuten.

13. Hermanotan euskal ohiturak zaintzen zituzten

- **Erref:** ZAR-013/005
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:04:31. **Bukatu:** 00:07:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

<p>Lehenbizi miserikordian ikasi zuen. Irakasle onak izan zituen eta denak euskaldunak. Eskolak erdaraz eman arren, abestiak euskaraz ikasi zituzten. 34an ikasitako mendigoizaleen inguruko abestia. Santa Agedetan kuadrillak osatu eta eskean abesten irten ziren. Gero hermanotan bazkaria. Eskolan euskal ohiturak asko zaintzen zituzten.</p>

14. Gerra-garaiko aldaketa irakasle kanpotarrak etortzean

- **Erref:** ZAR-013/006
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:07:34. **Bukatu:** 00:08:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra garaian kanpoko irakasleak etorri ziren. Kanean ilaran eramaten zituzten eta "Arriba España" esanarazi. Batzokia, "Juventud antoniana" eta beste hainbat itxita zeuden eta Zirkulora joaten ziren gaztetan.

15. Herritarren zaletasunak: antzerkia eta zinea

- **Erref:** ZAR-013/007
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:08:48. **Bukatu:** 00:11:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Antzokia zuen Zirkuloak. Zaletasun handia zegoen antzerkirako. Gerra aurretik lau konpainia zeuden euskaraz. Zinerako ere zaletasun handia zegoen. Bi zine zeuden Zarautzen. Zineko atezainari egiten zizkioten gaiztakeriak. Irakurtzea asko gustatzen zitzaion. Zentsura. Jendea lehenago irteten zen zinetik Francoren nodoa ez ikustearren.

16. Kontzieto bukaerako "himno real"a

- **Erref:** ZAR-013/008
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:11:35. **Bukatu:** 00:12:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Zarauzko musika-banda. Kontzieto bukaeran "himno real"a jotzen zuten. Txapela kentzen ez zuena jo egiten zuten.

17. Gosea eta errazionamendua

- **Erref:** ZAR-013/009
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:12:12. **Bukatu:** 00:13:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Garai gogorrak izan ziren. Harategian errazionamendua jarri zutenean, jendea goizeko 4tako zain egoten zen. Arraina nahikoa izan arren oliorik ez zuten izaten.

18. Elizaren indarra; derrigortzeak

- **Erref:** ZAR-013/010
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:13:08. **Bukatu:** 00:14:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Hermanotan zigortu zituzteneko kontuak. Ze elizkizun entzun behar izaten zituzten: meza nagusia, bezperak... Elizak zuen indarra.

19. Tabakoa errazionamenduan

- **Erref:** ZAR-013/011
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:14:32. **Bukatu:** 00:15:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Etxean inork ez zuen erretzen, baina purua erretzen zuten egun berezietan, eta gero mareatuta. Errazionamenduan tabakoa hartzen zuten eta gero saldu.

20. Harategiaren inguruko kontuak: ganadua hiltzea eta banaketa

- **Erref:** ZAR-013/012
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:15:32. **Bukatu:** 00:18:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Baserría » Baserríko lanak » Abere-hiltzea
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Bizikletarekin haragia banatzen ibiltzen zen. Zumaiaiko ospitale militarrrera 20 kilo haragi eramaten zituen. Hiltzea non zegoen. Norberak hil eta larrutu behar izaten zuen ganadua. Hasieran borrarekin hiltzen zituzten; gero puntillarekin.</p>

Transkripzioa

- Bueno, ordun hamalau urtekin hasi ziñan lanean?
- Bai, Itxaropenanian, bai.
- Eta gero, bizikletakin banaketak iten etxean.
- Bai, haragi-partitzen ibili gea.
- Haragi-partitzen.
- Ni, ni gerra denboran Zumaian zeon, ospitala bat zeon. Italianuak zaken "Hostpital Militar" eo, hotel famoso bat zan hor Zumaian... Bueno, kuestiyua, hogeí kilo haragi hartu ta bizikletan...

- Hoge kilo?

- Karo! Parrillan hola hartu, bizikletan ta, ta, Zumaiko bizkarreko aldapan, ta oiñez jetsi ta gora ta. Ba, holakua asko...

- Ta mutil, mutikoa ordun?

- Bai, hamalau urtekin.

- Ta, txahala ta nun, non, nun...

- Hemen mataayak zian, hamen... Hemen talleres, hor..., San Pelaioko... bonberuak nola? Hor aurrian zan, mataaya hor zan. Mataayan 'e ni gerra denboran, karo, ni, karo, anaiak itxian iten zuen lana, bi anaiak harateiyan, itxian, baiño ni kanpuan. Baiño, ganaua hil behar zanian ta, o ganaua hiltzea ez, baiño bakaziyuak baldin banitun, laundu in behar itxian. Esaten dizut ba, udaan, udan haragi-partitzen. Ta, ta desiatzen baiñatzea juteko, ta...

- Eta, nun, nun, txahala non erosten zan, edo nola...

- Tratua, ba, e, norbeak erosten zun baserritarrakin, ta. A! Gerra denboran, razionamentuko denboran basarri danak, danak zea zauzten, registrada, ta bazakiyen zenbat txahala zeon, ta nun, ta zenbat txahala, zenbat arraldekoa, gutxi gorabehera zenbat, dana patentao. Geo, hasi zian estraperloko denboran ya, orduan ya kanpotikan ekartzen ta. Ba, mataayan norbeak hil behar, ta larrutu ta norbeak. Geo, ekarri zuen, matarifia ta hoiek geo hasi zian. Porke Zarautzan zauzten aurrena zazpi harakin zauzten hemen Zarautzan, zazpi harategi. Ta txahalakin tratua in, ta jolin!, puntillakin ta, ta. Gure aita hortan oso aurreauta zeon, pistolakin ta hiltzen genun. Txarriya ez det hil, laundu bai, baiña txarriya, ño!, ikara ematen zian, marruka. Baiña txahala, puntillakin ta. Ta lehendabizi porrakin, e? Hola jarri, burua altza [...], ta porra honekin, dan!, ta, jo hamen kopetian, ta bla! Baiño puntilla zeon, polito zan puntilla: tak eta hala. Goatzen naiz, nik gutxi larrutu, gutxi in izan det, porke esan dizut, lana iten nun, baiño, zea zan, behi gazte bat oso gaixtua, bueno, ba, ordun, bastante basuan ibilitakua ta. Nere ustez hilda zeon, tripaz gora, bueno, hankaz gora. Ta ni, atzian jarri naiz ta, sartu diyot kutxillua [...] hasi naiz, ta nunbait uaindikan biziik, eta, a!, eman zin zarta bat, ta tak, hementxe eman zian. Hoi dakat anekdota nik, ganaua larrutzen.

21. Ganadua hil ostean gibela baserritarrentzat

- **Erref:** ZAR-013/013
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:18:17. **Bukatu:** 00:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Baserritarrekin tratuan erosten zuten ganadua. San Jose egunean arkume mordo hil behar izaten zuten. Ganadua hiltzean gibela baserritarrei ematen zitzairen, baina San Pelaioko ganaduek gibel txarra izaten zuten belarrarengatik.</p>

Transkripzioa

- Eta, etxian, txahalak eta aita erosten zitun, ala...
- Anaiak eta, aita ta, bai, tratua: baserritarrakin jun, ganaua ikusi, ta bai...
- Nungo baserritarrak eo?

- Hemenguak, hemen... Urteta ta, Elkanokuak eta. Ta San Jose egunian igual ehun ta gehio arkume hil behar, ta larrutu ta 're, geu.

- Eta, zea, ordun, e, zer esan behar nizun, tratuan ere pixkat, e, euki beharko zan arte piska bat, ez?

- Bai, bai. Baiño hortan danak gutxi gorabehera ibiltzen zian. Beak jakiten zun baserritarrak ze gorabehera ibiltzen zuen, ta, preziyuakin ta, ta, bai. Hemen bazan esaera, igual [...] enkargatu gibela, eta en kanbio, Iñurritzako ganauak eta, gibela txarra ateatzen zitzaioen danai. Nunbait hoiek jaten zuen belarra, zea, gatz-urakin ibilitako belarra zan, ta nunbait kalte iten ziyoen. Ta, igual... baiño ehunetik, beno, ehunetikan igual larogeita hamabi o danak txarra.

- Gibela txarra?

- Gibela txarra, bai. Belarrak nunbait ura gatz-uraatikan izango zan. Porke askotan, igual gibela ta, ez, txahala San Pelaioquia zan, ta gibela txarra zakan.

- Bai, ohitura zan, matantza in ta gero, gibela jatea jutea, ez?

- Bai. Eske, gibela nekazaiari ematen zitzaion, paiñelu garbiya ekartzen zun, ta gibelan [...] zea, ta hura, Martanea juten zian, oain soziedadia hola dao Iñurritzan?

- A, bai.

- Kapillan ta ermitan aurrian? Ba, hor taberna zan, hori Martanequak esaten zian. Hor, hor jaten zan gibela, ba, ohitura bai. Baserritarrak eta harakiñak, bai.

- A, elkarrekin?

- Bai, elkarrekin jaten zuen, bai, bai. Ta, ze ta, kobratzen zuen al día, e? Handikan, ra!, harateira jun, ta hainbeste arralde. Beruana kendu, ta. Arraldia bakizu, bost kilo da. Bai, ba. Ba, hogeita hamar o hogeita zortzi arralde. Bueno, oain, preziyua hainbestia zan, taka-taka paatu, ta...

- Gertatu al da lapurretaik eta hola, gero paauta ta hola, nozbait entzun deu guk...

- Behin esan zuen hor hil zuela bat hor, ez dakit, hor Urdaneta aldian, o, baten bat hil zuela, lapurretan ta.

- Dirua kobrau ta gero?

- Bai, dirua kobrau ta geo, bai. Nik aitua dakat behin o hola. Geo, kareta, gorputza kareta sartu o. Istoriya bada hori, kareta sartu, ta... Baiña bestela ez, hemen... Denbora haiek.

22. Bizikletarako zaletasuna, baina bizikleta gutxi

- **Erref:** ZAR-013/014
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:20:35. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

<p>Banaketa non egiten zuen. Gehienbat herrian ibiltzen zen; auzoetara bide oso txarrak zeuden. Jende gutxi izaten zuen bizikleta orduan eta gehienek alkilatu egiten zuten. Beraiek hiru zituzten eta bat karrerakoa zen, Eibarko BH-tik bereziki ekarria. Nolakoa zen bizikleta. Bizikletan ibiltzeko zaletasun handia zegoen eta lasterketak ere egiten ziren.</p>

Transkripzioa

- Eta, banaketa, e, ze lekutan eiten zenun zuk mutikotan, hamalau hamasei urtekin, bizikleta hartu ta ze lekuta? Ospitalea esan dezu Zumaira.

Hortikan aparte?

- Bizikletan, ba, ibili, herriyan. Eske, orduan, txaletak eta uain dare, baiño hor dana txaletez beteta zeon, ta udaan, ta ni ez, baiño nere anaiak eta, bizikletakin ta, Miara igual jun ta, biria, zea, txarra zian, gurdi-biriak eta. Igual, Elkanoa juteko, ba, bizikletan zeara jun, e, Miara, ta Mian bizikleta laga, ta handikan oiñez ta juten zian. Hemen, Zarautzan, pentsa zazu, bi o hiru tailler bazauzten alkilerrekuak. Hemen bizikletak hola, kontatzeko mouan zazkan jendiak, e! Bizikletan ibili nahi bazenun, alkilatu in behar izaten zan, in behar izaten zun. Gure itxian beti eoten zian bi eo hiru bai, bat karrerakua, gaiñea. Beno, karrerako hau ez zan guria, baiño Lasak eo, hoiek euki zuen tailerra nere aurretik. Oain hotel Alameda nola dao? Eskaillerak eta ditu. Hor itxe txiki bat zeon, ta hor zekaen garajia. Ta nere anai bat, zaharragua, oso ona zan bizikletan. Ta hura launtzea juten zitzaion tailler hortan, mekaniko launtzea. Oso afiziyo haundiya zun mekaniko. Ta, in ziyon behin hango nausiyak Eibarrea eaman, be hatxen fabrika. Ta han eman ziyoen bizikleta bat karrerakua, zea, Bizente Trueban neurrikua, kamixetak, zapatillak, dana. Llantak eta zian egurrezkuak. Orduan, egurrezko [...] ta. Bere bizikleta bere kanbiyuakin ta. Ta, karo, hori zan... Gure itxian eoten zan. Ez zan guria, baiño guria zan, esateko. Gerra bukatu zanian, bueno, gerra jun zanian, haiek pixkat republikanuak zian, haiek aurea ju zian. Ta gure itxian geatu zan bizikleta. Gure itxian eon zan hori, guria balitz bezela, gu ibiltzen giñan: ni, anaia, ta... Gerra etorri zanian, ba, in gendun, ba, guk bizikleta beai entregatu. Ta esan zigun, ez, ez, guria zala, ta. Orduan hemen bizikletako afizio haundiya zan, e! Hemen karrera onak iten zian, e! Ta Zarauzko, herriyan... Orduan kanbiyuakin, nik nun bizikletak kanbiyo ta guzti zakan, e! Ez pentsa, nik korritu nun kamiseta orbeakin.

23. Lehenengotako telefonoa zutenez, enkarguak egiten zizkietan aristokratei

- **Erref:** ZAR-013/015
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:27:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

<p>Aristokraten etxeetara ere banatzen zuten haragia. Zarauzko lehenengotako telefonoa beraiek izan zuten eta enkarguak egiten zituzten. Gran Hotelak kategoria handia zuen eta Duquesa de Alba eta beste hainbat etortzen ziren. Zarautzen egoten ziren aristokratak. Golf-ean eurak bakarrik sartzen ziren.</p>

Transkripzioa

- E, udan ta banaketa iten zenun etxeeta ta abar.

- Bai.

- Tokatuko zitzaizun, e, jente bereziya ezautzia.

- Bai. Baiño, baiño, guk tratua eukitzen gendun kozineruakin ta, ta. Baiño

jende haundiya? Jesus! Ni, nei esaten die, nei Venezuelan esaten zien "El Carnicero Real" esaten zien, porke karo, hainbeste jende, kanpotik etortzen zian ta, jende, tituloko jendiak eta. Ta, karo, nik banakin ze, ze kasta zian, ze tituluak zezkaen, ta izenak nola zezkaen txaletak eta hoiek dana. Porke Zarautzan, telefonua 're lehenbizikotakua izan zana gure itxian jarriko zuen. Oaindik gooratzen naiz telefono numerua: "seis, siete". Ta, ingurukuak eta zeoze, enkargua nahi zituenak, guri ematen ziguen, ba, ta. Guri, berriz, ba, igual esaten zigun, ba, geure klientiak nola zian, esaten ziguen, "bueno, vete a la pastelería, ir a la pastelería Serras y que nos traigan, pues, igual, una docena o dos docenas de pasteles". Ta, ra!, juten giñan, enkargun bat hartu telefonotik, bai. Borguetonakua, Marqués De Borgueto, geo esango dizut zein dan, baiño, "Marqués de Borguetoakua abixatu due bi dozena pastel eramateko". "A, bai?", ta ra, guk enkargua eman gendulako, ta, igual pastelak guretzeko. Ta guk pastelak hartu, ta gustoa, bale, enkargua emateko listo. Bai.

- Ba al daukazu esatia ze familiko, ze famili ezautu dituzun, hola, bereziyak eta?

- Puf, Jesus! Pilla bat esango nizuke. Hemen beraneatzen eonda hemen lehenbiziko lehendakaria izan dana Irlandakua, De Varela. Horrek Zarautzan... Nik ezautu det ba al dakizu nun? Muskaria nola daon? Hori! Hori lehen zan Villa Miramar. Hori zaitzen zuen Gerekatarrak zaitzen zuen hori. Ta horko nausiyak nik ez dakit, jarri zuen geo komo, komo hotel, hotela bezela. Ta, De Varela etorri zan honea uda bat pasatzea, uda, udazken bat, bere seme batekin. Semia zan jesuita. Itsututa zeon. Hori, nik ezautu det hori, De Varela. [...] gaur zea da, e, hurrengo itxia, ze izen daka horrek, Eguzki... Hori zan Gran Hotel. Gran Hotelek zakan kategoriya. Horrea Duquesa de Alba ta, horrea etortzen zian. Nahiz euki Donostiyan palaziyuak eta, bere alabakin ta horrea etortzen zan. Alaban nobiyua Donostitikan Zarautza etortzen zan, e, horrena, nola da, Duquesa de Alba. Horrei, horrena, Zarautza etortzen zan, e! Toreruak hemen nik, Zarautzan bai. Orduan, gerra denboran 'e, pues, toreruak eta hor, baiño hor tituluko, Gran Hotela zan, kategoriya. Villa San Luís, Conde San Luís, ta. Conde San Luisen semia bat bakizue zein dan? Sartorius komunista nola? Horren aita Conde San Luís zan. Eta hoiek, hoiek danak zarauztar, zarauztar hoiek, desiatzen eoten zian Zarautza etortzeko. Hoiek, zarauztarrak zian hoiek, porke orduan hoiek iten zuen, [...] arteko uda pasatzen zuen hemen. Sartorius ta Adanero. Acebo nola? Hoiek 'e Villa Deleitosakuak eta, hoiek danak Zarautza etortzen zian danak. Zea, Osborne hoi enaitonak eta, Marqués de Borgueto, ta. Los Domec, los Colón Carvajal, hoiek danak zarauztarrak zian hoiek danak. Danak, e? Hoiei Zarautza aitatu ta lerdia daiyola geatzen zian hoiek. Nik dakit, jolin, ta oaindikan 'e batzuek bakae pixua dakaenak eta, honea etortzen dianak oaindikan. Marqués de Mariño nola? Sartorius, nola Isabel Sartorius eta, horren aita, hori da Conde San Luisiko illoba hori, Sartorius. Marqués de Mariño oain dala denboa gutxi hil da, urte bete. Bere alaba prinsipiakin ibili zala ez zala, ez al zea gooratzen? Zeoze, nobiyuak... "De rosa no sabe" honek, honek.... Ba hori, oaindikan Zarautza etortzen da nei esaten dienez. Nik hasi.... Oain karo, oain itxiak in ditue, baiño, Conde Santillana, Duque de Lecera, Duque de Unión de Cuba, Conde, Conde de Tebas, Zarauztikan campeón mundial geatu zan zian hoiek tiro pitxonian. Conde de Tebas zarauztar, "por el Real Golf Club de Zarauz". Inmobiliaria de Orio nola dao?

- Bai.

- Hoi zan lehen Txoko-Txiki. Ba, hor, Duque de Unión de Cuba horrea etortzen zan. Ta karo, hoiek gutxi gozatzen zuen herriya, porke hoientzat gola zan, "era un... jolin, era un feudo". Han beak bakarrik sartzen zian.

24. Zarautzen egoten ziren konde eta markesak

- **Erref:** ZAR-013/016
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:27:40. **Bukatu:** 00:30:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Hohenloheko printzea. Gurasoek zilarrezko eztaeiak egin zituztenean festa eman zuten Zarautzen, Santillana kondearen palazioan. Duque de Miranda, Conde Adanero, conde San Luis, marqués de Mariño... Zein etxe zen bakoitzarena.

Transkripzioa

- Famoso principe Hohenlohe, nola? Hor, Marbella ta in zuna ta. Hoiek Zarautzan. Hoien bodas de plata gurasuana, Zarautzan ikaagarritzko festa eman zuen hoiek, zean, oain nola dao Cruz Roja, ta, Gurutze Gorriya? Hori zan, Santillana zan, famoso Conde Santillanan palaziyua zan hori. Ta hor festa bat eman zuen, Zarauzko banda jun zan, ta danak erdi mozkortuta arduakin ta, ta. Jata eroi zan harriya... Holako harri koskorrak eta, bai. [...] ikaragarriya. Aristokraziya, jo, Conde, Duque Miranda, Alfonso trezen (XIII) ayudantia., ta. Duque Miranda, zean, finka zea zan, Hotel Zarauz nola dao? Hotel Zarauz onduan, telebisiyua, Zarauzko telebisiyua ta nola eon zan? Hori Duque Mirandana zan. Sanz Eneko hori, hori zan Sanz Enekua. Hori zan, "los de Ligués". Esparrago Txistu ta nola? Hoien nagusiyak eta hoiek zian, hoien nagusiyak. Hoiek zian aristokrazikuak hoiek 'e. Ta haren aurrian, Conde de Adanero. Hori ez... Hor finka bat, finka bat zea da hori, autobusa nola geatzean da, e... Donostira juteko autobusa Sanz Enea aurrian? Ba, Gurutze Gorriya? Hori zan Santillana. Bestia zan Villa San Luís, hori zan Conde San Luís. Hori zan "Coronel de Aviación y Capitán de Navío". "Era agregao militar en la embajada inglesa". Zian hiru mutil ta hiru neska, uste det. Danak zian [...], eskandinabuak ematen zuen, rubiyo-rubiya. Ba, hoien lehengusua zan, ba Conde San Luisen anaia zan Marqués de Mariño. Marqués de Mariño zan alarguna. Ta zazkan hiru seme ta alaba bat. Hoien txaleta oaindik hor dao, Villa San Ignacio. Ez dakit zuk ezautuko dezun: harrizko txalet bat, e? Ba, txaleta hoiena zan, porke nik txalupa hor eukitzen nun, ta. Ta, e..., a! Seme zaharrenak andregaia in du bere arreban lagun bat. Ta, ze in du gizajuak? Aitai presentau diyo andregaia, ta aitak kendu! Aita ezkondu... Ba, ba, hori San Ignacio. Hor uain itxe batzuk badia ezker ta eskubi? Hoi zan, lehen zan Villa Goñi. Ta hor etorri zan behin princesa bat, princesa, monarka bat, ez dakit nundikan [...] beraneatzen. Bueno, San Ignacion onduan dao Villa Gerena badao, hor zan Conde Gerena zan, Gerena, Madrileño bat. Madridko akzionista, ta Zarauzko afizionatu haundiyena fubolian, Zarauzko ekipuakin. Baiño, hola asko, e? Aristokrazi..., aristokrazikuak, Jesus!

25. Cristobal Colon eta bere sendiaren inguruko kontuak

- **Erref:** ZAR-013/017
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:30:48. **Bukatu:** 00:34:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Domec-enekoak. Pilartxoenea. Colonen ondorengoen inguruko kontuak. Cristobal Colon Pasaian eta inguruetan egon zeneko pasadizoak. Aguila Fuenterenean ere ospitale militarra egon zen. Etxe izugarriak izaten zituzten, sukalde handiekin eta zerbitzari ugari izaten zituzten.

26. Aristokraten bizimodua Zarautzen

- **Erref:** ZAR-013/018
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:34:56. **Bukatu:** 00:36:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Non egiten zuten bizimodua aristokratek: zinean eta golfean. Gazteek kadi izan nahi izaten zuten. Hondartzara ere joaten ziren albornozekin. Zarauzko neskek debekatuta zuten moilan bainatzea.

27. Foru Aldundiak erosi nahi zuen eraikin baten inguruko gorabeherak

- **Erref:** ZAR-013/019
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:36:27. **Bukatu:** 00:39:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Markes baten inguruko kontuak. Donostiarekin pikea izaten zuten. Foru aldundiak Argiñanoneko eraikina erosi nahi zuen langileen haurrek bertan oporrak pasatzeko, baina udalak eta aristokratek ez zieten utzi. Ingurua nolakoa zen.

28. Aristokraten ohiturak eta aberastasunak

- **Erref:** ZAR-013/020
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:39:14. **Bukatu:** 00:42:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Aristokrata gazteak bizikletan joaten ziren zinera eta mezetara txoferrarekin joaten ziren. Emakume batzuk txakurra urrezko eraztunekin erabiltzen omen zuten. Beste familia batek "Mariposa" izeneko kanoa zuen eta auto deskapotablea. Familia honen inguruko kontuak.

29. Aristokraten inguruko kontuak

- **Erref:** ZAR-013/021
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:42:56. **Bukatu:** 00:45:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Marques de Brenes. Beste aristokrata batzuk non bizi ziren. Proportzioan Donostian baino aristokrazia gehiago egoten zen Zarautzen. 50. urte ingurura arte iraun zuen honek.

30. Narros palazioaren eta bertakoen inguruko kontuak

- **Erref:** ZAR-013/022
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:45:20. **Bukatu:** 00:47:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Bere emaztearen ama sukaldari egon zen palazioko kontuak (Narros). Bertako markesaren inguruko kontuak. Garai batean komandantzia militarra izan zen.

31. Komandantzia militarra eta Zarautzen egin zen ituna

- **Erref:** ZAR-013/023
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:47:05. **Bukatu:** 00:48:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Komandantzia militarra. Bertako komandantea nafarra zen: Uharte. Itun bat egin zen Zarautzen 40-41 urte inguruan eta baporeak sirena joz etorri ziren.

32. Zarauzko zenbait villa eta bertako familiak

- **Erref:** ZAR-013/024
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:48:20. **Bukatu:** 00:50:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Aristokratek etxe handiak izaten zituzten eta zerbitzari asko. Villa Delitosak villa Tarifa zuen izena lehenbizi. Bertako dukea markes baten alabarekin ezkondu zen. Beste villa batzuk.

33. Aristokraten inguruko kontuak

- **Erref:** ZAR-013/025
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:50:16. **Bukatu:** 00:52:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Batzuetan bere amaginarrebari otarra kendu eta eraman behar zuen villaraino eramaten laguntzen zion. Aristokratek gastuak sortzen zituzten, baina langile gehienak kanpotik ekartzen zituzten. Bertakoek hotelean egiten zituzten zerbitzari lanak.

34. Aristokraten inguruko kontuak

- **Erref:** ZAR-013/026
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:52:04. **Bukatu:** 00:53:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Asko edaten omen zuten aristokratek eta elkarren artean harremanak izaten zituzten. Beste zenbait aristokraten inguruko kontuak.

35. Aristokraten eta herritarren arteko harremana

- **Erref:** ZAR-013/028
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:53:58. **Bukatu:** 00:56:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Carnicero real deitzen zioten berari. Zarauztarrak aristokratekin txikiteoan eta euren bodegetan ere ibiltzen ziren. Gran Hotel-era ere asko etortzen ziren. Autostopean ari zen bat famoso batzuk nola eraman zuten kontatzen du. Azpeitiko Bastida txirrindulari izandakoaren inguruko pasadizoa.</p>

36. Aristokraten eta herritarren arteko harremana

- **Erref:** ZAR-013/029
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:56:15. **Bukatu:** 00:58:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Aristokratek ez zuten herriko bikoterik izaten, ondo begiratzen zen zein familiatakoa zen. Baina mutilek izaten zuten herriko jendearekin harremana. Euren arteko harremanak golfean izaten zituzten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com